Arrigorriaga
UDALA - AYUNTAMIENTO

**ARRIGORRIAGAKO UDALAREN 2017-2018KO ARAUGINTZA PLANA**

Arrigorriagako Udalbatzak, 2017ko urriaren 26an egindako ohiko bileran, hauxe erabaki zuen: Arrigorriagako Udalaren 2017-2018ko Araugintza plana.

*Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 132. artikuluak, arau-plangintzari buruzkoak, hau adierazten du:*

1. *Urtez urte, administrazio publikoek argitara emango dute araugintza-plan bat, eta hartan jasoko dira hurrengo urtean onesteko igorriko diren lege-edo erregelamendu-ekimenak.*

2. *Onetsitakoan, Urteko Araugintza Plana argitaratu egingo da, dagokion administrazio publikoaren gardentasun-atarian.*

*Bestalde, lege beraren 133. artikuluak hizpatzen duenez, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:*

a) *Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
b) *Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.*
c) *Arauaren helburuak.*
d) *Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.*

*Dagoen araudia aurretik ebaluatu da ziurtatzeko arauketa onaren printzipioekin bat datorrela eta egiaztatzeko zein neurritan lortu*

**PLAN NORMATIVO AYUNTAMIENTO DE ARRIGORRIAGA 2017-2018**

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión ordinaria, celebrada el día 26 de octubre de 2017, aprobó el Plan Normativo del Ayuntamiento de Arrigorriaga 2017 – 2018.

*El artículo 132 sobre Planificación normativa de la Ley 39/2015 de 1 de octubre señala lo siguiente:*

1. *Anualmente, las Administraciones Públicas harán público un Plan Normativo que contendrá las iniciativas legales o reglamentarias que vayan a ser elevadas para su aprobación en el año siguiente.*

2. *Una vez aprobado, el Plan Anual Normativo se publicará en el Portal de la Transparencia de la Administración Pública correspondiente.*

*Por su parte el artículo 133 de la misma ley estipula que con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:*

a) *Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.*
b) *La necesidad y oportunidad de su aprobación.*
c) *Los objetivos de la norma.*
d) *Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.*

*Habiéndose realizado una evaluación previa de la normativa existente para verificar su adaptación a los principios de buena regulación y comprobar*

IFZ / NIF: P4801400E

*duten indarreko arauek aurreikusitako helburuak, eta ea justifikatuta eta egoki zenbatetsita zeuden haietan ezarritako kostu eta kargak, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 130. artikuluak xedatzen duen moduan eta aurkeztutakoa (ordenantzen eta araudien sinopsi-azterlana) ikusita. Araugintza-plan hau onestea proposatzen da, hurrengo urtean onesteko aurkeztuko diren arau-ekimenak barne:*

1) Arrigorriagako Udaleko babes zibileko boluntario-taldearen araudia (udalbatzak 1992/09/24ko osoko bilkuran onartua eta BAOren 19. zenbakian, 1993ko urtarrilaren 25ekoan, argitaratua) indargabetzea.

2) Erabilera soziokulturaletarako udal-lokalak erabiltzeko araudi berria egitea.

   Arrigorriagako bizilagunek erabili eta gozatzeko aukera izateko gizarte eta kultur jardueretarako udal-aretoen funtzionamenduari buruzko araudia (udalbatzak 1999ko maiatzaren 27ko bilkuran onetsia eta BAOren 251. zenbakian, 1999ko abenduaren 31koan, argitaratua) ordeztuko du.

3) Bide-garbiketa arautzen duen ordenantza egitea.

   Bide-garbiketarako udal-ordenantza (1993ko apirilaren 29an onetsia eta BAOren 154. zenbakian, 1993ko azaroaren 4koan, onetsia) ordeztuko du.

4) Jabari publikoko espazioen okupazioa eta gizalegezko portaerak arautzen dituen ordenantza egitea.

5) Arrigorriagako Udal Plangintzako Aholku Batzordea arautzen duen araudiaren aldaketa partziala egitea.

*en qué medida las normas en vigor han conseguido los objetivos previstos, su justificación y cuantificado su coste y cargas que imponen, tal y como dispone el artículo 130 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre y visto el mismo (estudio sinopsis de las ordenanzas y reglamentos) ya presentado. Se propone la aprobación del siguiente Plan Normativo con las iniciativas reglamentarias que van a ser elevadas a aprobación durante el año siguiente:*

1º) Derogación del Reglamento del Cuerpo de Voluntarios de Protección Civil del Municipio de Arrigorriaga, aprobada por el pleno el 24/09/1992 y publicada en el BOB núm. 19 de 25 de enero de 1993.

2º) Elaboración el nuevo Reglamento de utilización de locales municipales destinados a usos socio-culturales.

   Que sustituya al Reglamento de Funcionamiento de los locales municipales destinados a actividades Socio-Culturales, para uso y disfrute de los vecinos de Arrigorriaga, aprobado por el pleno de 27 de mayo de 1999 y publicado en el BOB núm. 251 de 31 de diciembre de 1999.

3º) Elaboración de la ordenanza reguladora de la limpieza viaria.

   Que sustituya a la ordenanza Municipal de Limpieza Viaria aprobada el 29 de abril de 1993, publicada en el BOB núm. 154 de 4 de noviembre de 1993.

4º) Elaboración de la ordenanza reguladora de la ocupación de los espacios de dominio público y de los comportamientos cívicos.

5º) Elaboración de la modificación parcial del Reglamento regulador del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal de Arrigorriaga.

IFZ / NIF: P4801400E

Udalbatzak 2008ko uztailaren 18an onetsia, BAOren 194. zenbakian, 2008ko urriaren 9koan, argitaratua eta ondoren 2010eko urriaren 29an aldatua (BAOren 191. zenbakian, 2010eko urriaren 4koan, argitaratu zen) partzialki aldatuko du.

Que modifique parcialmente al aprobado por el pleno el 18 de julio de 2008, publicado en el BOB núm. 194 de 9 de octubre de 2008, con posterior modificación de 29 de octubre de 2010 publicada a su vez en BOB núm. 191 de 4 de octubre de 2010.

6) Jabari publikoko espazioen okupazioa eta gizalegezko portaerak arautzen dituen ordenantza berriaren barruan, jaietan txosnen instalazioa arautzea xede duen berariazko titulu bat egitea.

6º) Elaboración dentro de la nueva ordenanza reguladora de la ocupación de los espacios de dominio público y de los comportamientos cívicos un título especifico destinado a la regulación de la instalación de las txosnas en fiestas.

Titulu horrek herriko jaiak edota beste edozein ospakizunetarako jartzen diren txosnak arautzeko udal-araudia (2005eko ekainaren 24an onetsia eta BAOren 186. zenbakian, 2005eko irailaren 29koan, argitaratua) ordeztuko luke, eta azken hori indargabetuta geratuko litzateke".

Dicho título sustituiría a la actual Ordenanza Reguladora de Adjudicación y Funcionamiento de Txosnas que se instalen con motivo de la celebración de fiestas patronales y otras celebraciones, aprobada el 24 de junio de 2005 publicada en el BOB núm. 186 de 29 de septiembre de 2005, la cual quedaría derogada."

*************

IFZ / NIF: P4801400E

Urgoiti pasealekua 57 · 48480 Arrigorriaga · T. 944 020 200 · F. 944 020 209 · www.arrigorriaga.eus